

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren 2020ko erroldak jendaurrean jartzea eta ordaintzeko epea hastea

Trakzio mekanikoko ibilgailuen 2020ko zergaren errolda osaturik, jendaurrean jarrita egongo da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, interesdunek aztertu ahal izan ditzaten eta, hala balegokio, egoki deritzeten alegazio eta erreklamazioak aurkeztu. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onetsizat emango da erabaki hau.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertzeko errekurtoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko apirilaren 17tik ekainaren 17ra.

B) Betearazte aldia: 2020ko ekainaren 18tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Santander edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Lapuebla de Labarca, 2020ko martxoaren 9a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ